

Mikelontzio eta txantxak

Herri txiki-txiki batean, bazen behin Mikelontzio deituriko mutiko bat, eta herriko hamahiru lagunekin batera, txantxetan aritzen ziren. Adibidez, orain dela hiru aste, arreba txikiari txantxa bat egin, eta prakak busti-bustita utzi zizkieten, ur globoak erabili zituzten-eta. Galtzetan pixa egin zutela ematen zuen, ordea. Mikelontziok, betaurrekoak, eta aurpegian oreztak zituen, eta argala eta altua zen, seguraski lagun guztietatik altuena. Ile marroia eta motza zuen, bere begi urdinez gain, eta oso abenturazalea zen.

Lotsati xamarra zen bai, baina txantxak egitea maite zuen, hala ere, asko damutzen zen. Eskuzabala eta sentibera zen, halakoa zela erakusten ez zuen arren. Bihotz onekoa ere bazen, besteen arazoak ulertzen zituena. Egun batean, lagun guztiak kalera irten eta era guztietako txantxak egiten hasi ziren: etxeetan txirrinak jotzen, anai arrebei ur-globoak botatzen... benetan asko disfrutatzen zuten.

- Mikelontzio!- garrasi egin zion lagunik onenak
- Zer Patxi?- erantzun zion Mikelontziok
- Emango al dizkidazu beste bi txantxetako xagu?

Mikelontziori, ordea, nahikoa iruditzen zitzaion, arratsalde osoa zeramaten Gartzia andereari txantxak egiten, baina Patxik (lagunik onenak) esango zionaren beldur zen, izan ere, Patxi zen denetan trebeena.

- Zera... Patxi... ez zaizu iruditzen Gartzia andereak jada nahikoa duela?

Segundu batean, lagun guztiak berari aurpegira begiratu zioten, batak besteari galdetuz ea Mikelontzio burutik ongi zegoen, orduan, Manuk hitz egin zuen.

- Mikelontzio, hau txantxa bat da, ezta? Bizitza guztia daramagu txantxak egiten!
- Bai... barkatu, eee... txantxa bat zen!- esan zuen urduri, Mikelontziok

Zer gehiago esan zitekeen? Denak berari begira zeuden zer esango zuen itxaroten. Berak, ordea, ez zuen barrutik pentsatzen zuena esan, eta denak normalitatean jarraitzeko, xaguak eman zizkion Patxiri.

Handik egun batzuetara, Mikelontzio ahaldundu, eta Patxiri zerbait esatea erabaki zuen, lagunik onena zuelako, eta berataz asko fidatzen zelako. Beraz, etxeko telefonoa hartu, eta herriko plazan elkartuko zirela esan zion, zerbaitetaz hitz egin behar zutelako.

- Kaixo Mikelontzio!- esan zion Patxik plazara heltzerakoan- aurreko egunean pixkat arraro zeunden, zer gertatu zitzaizun?-
- Ba, horretaz hitz egiteko etorri naiz- erantzun zion

Ez zekien nola esan, baina behintzat ikaragarritzko gidoia eginda zuen etxean, eta bertan, Patxiri esan nahi zizkion esaldi guztiak zeuzkan idatzita, hala ere, ez zion berriketaldi guzti hori erakutsiko, gizajoa erdi-lo geratuko zelako.

- Begira Patxi, aurreko egunetan pentsatzen egon naiz eta batzuetan jendeari min egiten diogula konturatu naiz, nire arreba egunero niri iletik tiraka dabilelako izan da, eta gogoratzen zara herriko gurasoen aurpegietaz? Kriston fama txarra daukagu!- esan zion Patxiri
- Baina Mikelontzio, gu ez gara ezer txantxarik gabe!

- Noski baietz, txantxak uzten baditugu, denborapasa hobeak topatuko ditugu! Adibidez, Josuk, benetan maite du marraztea!
- Egia da, jendeari molestatu egiten diogu batzuetan...
- Batzuetan?! Beti!- erantzun zion Mikelontziok

Bi lagunak ados jarri, eta txantxak egitea betiko uztea erabaki zuten. Erabaki zaila izan zen, bai, baina oraindik besteak konbentzitu behar zituzten.

Ai ama! Mikelontziok ezin zion gehiago eutsi, komunera sartu eta hainbat puzker bota zituen, izan ere, soilik bi ordu falta ziren lagun guztiekin elkartzeko, eta Mikelontziok eta Patxi egia esateko. Mikelontzio oso, oso, oso urduri zegoen. Ordua heldu zenean Mikelontzio kalera irten zen. Patxi ikusi, eta biak batera lagunekin elkartu ziren.

Patxi ere, praketan kaka egingo zuela zirudien.

- Kaixo Patxi, kaixo Mikelontzio!- esan zuen Josuk
- Guri esateko zerbait zenutela esan ziguzuen, ezta?- gehitu zuen Manuk

Oraingoan, biak prest zeuden, hala ere, beldur pixka bat zutela ere igartzen zen, zerbait garrantzitsua zen-eta.

- Ba, pentsatzen egon gara eta, jendea txantxak egitean molestatu egiten dugula konturatu gara.

Aurpegi guztiak grabatzekoak izan ziren, baina behintzat, nahi zutena lortu zuten: denak konbentzitu zituzten. Ados zeudenez, eta hura herri txikia zenez, herriko jendeari barkamena eskatzera joan ziren: Gartzia andereari, familiari... denak barkatu, eta lasai gelditu ziren.

Aste batzuk geroago, dena normalitatera itzuli zen, denak lasai eta pozik zeuden, eta noizean behin txantxaren bat izaten zen, baina lagunaren artean, inor ez molestatzeko. Azkenean, gaizki egiten zeudela konturatu ziren eta hori ondo egindako zerbait izan zen.

ETA HALA BAZAN EDO EZ BAZAN, SAR DADILA KALABAZAN ETA IRTEN DADILA HERRI TXIKI HORRETAKO PLAZAN!!!

Eyekon